

ZARAUZ  
BASQUE  
SOUVENIR



# ZARAUZ

## Basque souvenir

### Esan eta egin

Begi-bistakoak dira Zarauzko aldaketak, bai; azken urteetako udal politikak bultzatuta, eredu jakin bateranzko norabidean jarri gara. Baina pentsatzen jarri al gara norantz goazen? Hausnartu al dugu zeinen mesedetan egin diren aldaketa horiek guztiak? Neurtu al ditugu izango dituen ondorioak?

Herritar batzuek, kezka eta arduraz bizi ditugu azken legegaldietan hartutako erabaki politikoak. Batzuk kontrakoa esan arren, uste baitugu erabaki horiek ez dituztela ardatz moduan pertsonen bizi baldintzak, guztiz kontrakoa baizik.

Uste dugu herritar gutxi bartzuen mesedetan eta gehien-goaren kaltetan ari dela garatzen Zarautz, eta kanpotik datozen turistei alfonbra gorria jartzen zaiela, herrian aberastasun handia uzten dutelakoan. Hori da hori, falazia! Musutruk dute herri oso bat haien zerbitzura.

Turisten eta jabetza pribatua duen elite baten intereseko dira azken urteetako erabakiak. Ez zaizkigu inporta, besteak beste: hemen ezin bizi eta beste herri batzuetara joandako zarauztar belaunaldiak; zein diren gatzetei eskaintzen zaizkien bizi-

bideak; nola bizirauten duten pobrezia kondemnatu ditugun herrialdeetatik etorri diren pertsonak; non biziko diren etxe bat erosi ezin dutenak; nora joango diren

**“gutxi batzuen mesedetan eta gehingoaren kaltetan”**

kale gorrian bizi direnak.

Zarautz oso polita da, baina saldu dezakegun souvenir bat izaten jarraitzea nahi al dugu? Bere adokin horiekin, lorategi bilakatu nahi diren porlanezko errotondekin, herriko berdegune handienaren okupazioa harrotasunez erakusten duen egurrezko pasabidearekin; kirol negozio bilakatzen ari den hondartza paregabearekin; diru asko eskuratu duten gutxi batzuk eros ditzaketen txalet eta villekin; herriko komertzioen kalterako diren azpiegitura handiekin; herriko aberastasun artistiko eta kulturala gutxien duen Modelo Areto berriarekin. Hara ze polita!

Esan egin zuten eta egin egin zuten. Eta guk guztiok, utzi genien.

Jarraian, arestian aipatutakoaren adibide batzuk bildu ditugu. Jakin, badakigu ez dela argazki osoa. Zarautz guztiz saldu aurretik argi-izpi batzuk eman nahi ditugu, besterik ez. Horregatik, ahalegin txiki bat eskatuko dizugu, irakurri eta denon artean eztabaidan jarraitzeko.

# Eta ingurunearekin zer?

Zarautz ingurune zoragarrian dago: iparraldetik itsasoak mugatzen du, hegoalde-  
detik Pagoetako parke naturalak, ekialde-  
detik Iñurritzako Biotopoak eta mendebalde-  
detik Garate-Santa Barbara, Babes Bereziko Ere-  
muak. Babestutako naturagunez inguratu-  
tuta dago herria, eta

hala ere, gero eta handiagoak eta larriagoak dira eremu osoak dituen arriskuak.

Klima-aldaketaren aroan sartu gara. Itsas maila igotzen ari den hipotesia indartzen ari da; hori dela eta, damo-  
goeneko Eusko Jaurlaritzak bera ere hasia da errealitate horri

aurre egiteko eszena-  
tokiak eraikitzen. Talaimendin hirigintza presioak etengabeak dira, eta tartean-tartean legearen mugan dauden proposamenak ezagutzen ditugu. Golfean, oraindik jarduera-baimenik lortu gabe, inolako kontrolik gabe dabil-  
tza golf-jakalariak eta

kanalean jasanezina da hegaztien estresa oinezkoak, surflariak eta txakurrak medio. Mendebaldean, ber-  
rriz, mahastiek kinka larrian jarri dituzte Garate-Santa Barbara babesgune bihurtzeko arrazoiak diren artelaz-  
tiak, eta herri eremuaz zer esan; hirigintza presioak ez du mu-  
garik, eta behar edo ez, etengabea da herri osoa porlanez janzteko egarria.

Udalak berak lau hai-  
zetara zabaltzen duen gerriko urdin/berdea ideia ona da, baina, horretarako, natur ingurunea zaintzeaz gain, argi izan behar da herriak ez lukeela autopistatik eta Iñurritza errekatik harago zabaldu behar. Eremu horretan kabitu behar dugu, hirigintza eredu jasangarri eta orekatua mantenduz. Helburu horretarako, garrantzitsua da Santa Klarako baratza eta parkea

bere horretan uztea, herriko ganorazko berdegune bakarra baita.

Zarauzko Hiri Antolaketa-  
rako Plan Orokorra zaharkitua dago. Ingurumen arriskuak ez ditu bere baitan hartzen, ez uholdegarritasun arriskuak eta ezta klima aldaketak ekar ditzakeen kalteak ere. Egun indarrean

**“gero eta handiagoak eta larriagoak dira eremu osoak dituen arriskuak”**

egon arren, berritze-  
ko denborara iritsita dagoen ZHAPO 2008ko krisi aurrekoa da; garai hartako zoritxarreko hirigintza eredu espekulatiboari erantzuten dio, eta hori aldatzeko garaia da. Baina horretarako, ezinbestean, herri gisa

ditugun lehentasunak finkatu behar ditugu: herritarren etxebizitza beharrak asetzea, natur ingurunearen babesa indartzea, herriko komertzioa eta ostalaritza sustatzeko araudiak egokitzea eta turismo jasangarria bermatzeko etxebizitza alokairu politikak doitzea. Hori guztia, noski, herriko eragile eta herritarren parte-hartzearekin berri-  
tako ZHAPOren bi-  
tarteaz.





# Eta non biziko gara?

Ehunka etxe hutsez betetako herri batean bizi gara, eta hori gutxi balitz bezala, edozein prezioan etxe berriak eraiki eta eraiki nahi dituen herrian (Aldapeta, Lanpardo, Iñurritza eta Salberdin), herriko beharrak asetzeko promesarekin.

Udal politikak bultzatuta, luxuzko etxe zein turismora bideratutako geroz eta etxe pribatu gehiago ditugu, etxeetako beheko pisu asko turismoari begirako negozio bi-

lakatu dira (herrian bizitza mantendu eta ogibidea eman dezaketan komertzioen ordez), eta neurririk gabe gora egin dute alokairuen prezioek. Askoz gehiago irabazten dute astero-astero etxea alokatzen dutenek urte osorako alokatzen dutenek baino.

Turisten etorrerak guztiz baldintzatutako herri baterantz goaz, eta Donostiako alde zaharrean edo Bartzelonako El Raval edota auzo Gotikoan gertatu bezalaxe, Zarau-

tzen ere kanpotarrak bakarrik bizi diren herri baterantz goaz. Turismo eredu basati horrek “Zarautzen dena libre da” premisa zabaldu eta egoera larriak sustatu ditu, eraso sexistak eta jipoiak kasu. Erasoak ez dira soilik kanpotik etortzen, ados. Baina masifikazioak zaildu egingen du prebentzioa eta kontzientziazio lana.

Sare produktiborik gabeko herri batean bizi gara. Azken

**“... dirua lehenesten da pertsonen bizitzaren ordez, ...”**

hamarkadetan hartutako erabakien ondorioz, Zarautzen ezin dugu guztiok bizi eta lan egin. Ondorioz, herritar gehienek beste herri batzuetan aurkitu behar dugu gure

# Eta non egingo dugu lan?

ogibidea. Herrian lan egiten dutenek zerbitzuen arloan edota zaintzan egiten dute lan (askok eta askok semiesklabutzan) eta eremu hau guztiz da prekarioa: feminizataua, arrazializataua eta ziurgabea.

Turismotik eta errentatik bizi direnen menpe daude negozio asko, eta, ondorioz,

irabazi asmoa gailentzen da bizibidearen kaltetan. Dirua, bai, dirua lehenesten da pertsonen bizitzaren gainetik, eta horrek bizimoduaren garestitzea dakar etengabe, herri ez bizigarria sortzeko arriskuarekin.

# Eta nork zainduko gaitu?

Espazioaren antolaketa nahiz herritarrok ditugun funtzio sozialak eremu publikoa eta pribatuaren artean banatu ditugu, eta botere harremanetan jarri; publikotzat hartu duguna garrantzitsuagotzat ere jaso dugu eta udal politikak horren mesedetan jarri. Zarautzen ere askoz garrantzitsuagoa bilakatu da herria porlanez betetzea zaintza lanak hobetzea baino. Arlo pribatuan emakumeak dira nagusi eta eremu horretan egiten diren lanek balio ekonomikorik ez dute, ez dira, hortaz, lan gisa aitortzen eta zaintza lanak asetzea familiari dagokiola sinesten jarraitzen dugu.

Hori guztia ez da kasualitatea, administrazio publikoen oniritzia duen estrategia politiko eta ekonomikoa da. Zahartze-tasa gora doa eta Udalak ez ditu martxan jarri gizarke zerbitzu gehiago. Familien eta merkatuaren logikaren esku utzi du zaintza beharren lan karga nagusia eta zaintzaileak (profesional zein ez profesionalak) egoera prekarioe-

tara eta isolamendura kondenatu ditu. Askoz errazagoa eta erosoa da jendearentzat merkatuan (guztiz prekarizatua, arautu gabea eta ziurgabea dena) pertsona bat kontratatzea etxez-etxeke zerbitzuaren edo bestelakoaren bidez zaintza lanak bermatzea baino.

Geroz eta zahar gehiago bizi dira aukeratu ez duten bakardadean, eta horren aurrean, nahiz eta diagnostikoa egina izan, ez dute inongo proposamen estrategikorik jarri mahai gainean. Zahartzaro aktiboaz mintzatu dira, adinekoen beharren logikaren ordez, merkatuaren logika jarraitzen duen eredu.

Menpeko egoeran dauden adinekoei begirako zentro bat egiteko promesa ere jaso dugu kanpainan. Zahartzaro-tasa gora egin duela argudiatuz egin dute proposamena. Hala ere, uste dugu zaindua izateko eskubide unibertsala ezin dugula beste pertsona batzuen prekariza-

zio eta diskriminazioarekin bermatu. Eta hori egiten ari gara, baldintza txarretan, kontraturik gabe, norbait kontratatzen dugunean. Edota zahar-egoitza edo erresidentzietan bertako langileak baldintza jasanezinetan ditugunean. Langileak egoitza berrian zein egoeratan egongo diren ez dute esan. Santa Anako langileen egoera berean? Gipuzkoako zahar egoitzetako egoera berean? Prekarietareak greba egitera bultzatzen dituztenen egoeran? Eta zeinen esku utziko dute egoitza? Berriz ere irabazi asmoa dutenen esku? Pertsonen zaurgarritasuna baliatuz diruz zorroak betetzen dituztenen esku?

**“... zaindua izateko eskubide unibertsala ezin dugula beste pertsona batzuen prekarizazio eta diskriminazioarekin bermatu.”**

Bizitzak erdigunean jartzeak kapital metaketaren eta patriarkatuaren logikak alboratzea dakar, eta ematen du udal gobernu honek ez duela hori egiteko inongo asmorik.





Arazo larri bat aomen dugu kotxeen aparkalekuekin, parking pribatu bat ez dugunok behintzat. Zergak egunean izanik ere, neguan hala moduz moldatzen gara, eta udaran egoiliarren kuota ordaindu arren, ezerk ez digu bermatzen herrian aparkatzea. TAO sistemak ez du inondik inora arazoa konpondu, eta zeresanik ez, denonak

ziren aparkalekuen pribatizazioak (hotelen aurrealdean erreserbatu diren hamarnaka toki edota etxe pribatuetan egokitu direnak, kasu). Gainera, etxebizitza proiektu berriz betea dugu herria, eta horrek arazoa gutxitu ez ezik, handitu egingo du.

Lanera kanpora joan behar izateak sekulaz kotxe mugimendua

**“TAO sistemak ez du inondik inora arazoa konpondu, ...”**

sortzen du eta horri gehitu behar zaio turistak erakartzeko ekintzen ondorioz sortzen den mugimendua. Joan-etorri etengabe daude ibilgailuak, oinezkoak lehenesten direla esaten den arren.

**Eta non utziko ditugu kotxeak?**

# Eta nola komunikatuko gara?

Herri oso euskalduna da Zarautz. Eta hain da euskalduna, zeinetan herriko gero eta komertzio eta taberna gehiagotan dauden ingelesezko eta gaztelaniazko hitzak eta azalpenak. Euskaraldia babestu eta euskara sustatzeko promesak egin zituzten berdinek ez dute horrekin ezer egin. Atera ziren Korrikan

euskara sustatzen dutela esatera, baina geroz eta gaztelania eta ingeles gehiago entzuten da gure kaleetan. Oso basque gara gure *bread*-a erostera joaten garenean, *smoothie* edo *coffe* bat edaten dugun bitartean edo gasolina *checkout*-ean ordaintzen dugunean; Baina azken ikerketa soziolinguistikoaren datuekin ez dute kez-

karik adierazi eta, gutxiago, ekintzarik proposatu.

Euskararen arnagune izan zitekeen herrian, geroz eta ardura gutxiago hartzen dute euskararen erabilera sustatzeko eta ikasteko. Eta badakigu zaintzen ez dena galdu egingo dela.

**“SMOOTHIE HEALTHY FOOD**

**PRO SURF CHECKOUT**

*holliday rooms*

*bread & chocolate*

**PLAYA CAFETERIA**

# Eta nora botako dugu zaborra?

Udalak bultzatu duen turismo eredua dela eta, kontsumora guztiz bideratutako herria da Zarautz eta horrek hondakin kopurua ugaritzen du. Azken urteetan, zaborren kudeaketari buruzko eztabaida bizia izan arren, ez dugu, momentuz, zaborra gutxitzeko eta errealki birziklatzeko eredia bilatu. Irtenbidea ematen saiatu diren auzoetan ere, Vistalegre kasu, konposta egiteko zuten eremua mugatu eta ezkutatu du Udalak, mendi bideak porlanez betetzen jarraitzeko.

Azken urteetan lehenetsi den zabor-bilketa sistemak gure kaleak zaborrez bete ditu. Udaldian zaborrontziak gainezka egoten dira birziklatzeko sistema kolokan jarritz. Gure osasuna eta inguru naturala suntsituko duen erraustegia bezalako munstroari jaten eman beharko zaio ezta? Hori da atzean sumatzen duguna.



# Eta zein da nahi dugun kultur eredu?

Gure hizkuntza ez babesteak akulturalizazioa (gure kultura galtzea, beste bat jasotzeko) eta homogeneizazioa sortzen dituen bezalaxe eragiten du herriko artista eta kultur adierazpenak ez babesteak. Zarauzko herritarron indarguneetako bat da kultur ekimen asko eta asko sortzen ditugula, guk geuk abiarazitako dinamiken bidez. Baina horiek errespetatu, babestu eta hauspotu beharrean, espektakularizazioa eta folklorismoa bultzatzen dira etengabe kanpotik ekartzen diren ekimenekin.

Bikote krosa, Literaturia, Antzerki astea, Putzuzuloko urte osoko kultur egitaraua, Natur astea, Astronomia astea, Zarautz kantuz, Dantzari Txiki eguna, Triatloia, Kuadrila eguna, Zerbeza azoka, San Pelaioak, Euskal Jaitako antzerkia, auzoz auzo antolatzen diren festak... denak sortzen dira herri ekimenen bidez. Herria biziberritzen duten egitasmoak dira, herritik sortuak, euskaratik sortuak, par-

te-hartze aktibotik eta sormenetik. Oztopoak oztopo ateratzen dira aurrera, nahiz eta Udalak aurrekontu eta baliabide oso gutxi eskaini.

Bitartean, esaten zaigu ezinbestekoa dela Zarautz marka saldu eta espektakulu handiak egitea, herrian aberastasuna sor dezaten. Baina dirutan neurtzen hasita. Ba al dakigu zenbat diru utzi zuten Dama inguruan egin ziren kontzertuek? Eta zenbat mugitu du ekonomia Putzuzulok antolatzen duen egitarauak Azken Portu auzoan? Hori da “elkarteekin lankidetzaz” deitzen dutena; herritarrak gutxiestea, parte-hartzeko espazioak murriztea zein baldintzatzea (kultur mahaia, parekidetasun kontseilua...), eta, nola ez, turistei herria saltzea.

Modelo areto berria ireki da eta erabilera balioanitzeko azpiegitura sortu beharrean, (kontuan hartu Zarautzek ez duela kultur etxerik) aurpegia besterik ez diote margotu. Promesa asko entzun ditugu urte-



tan Santa Klarako komentuarien harira, baina dakigun bakarra da herrian dagoen kultur espazio ireki bakarra (historikoki herri ho-

**“Ba al dakigu zenbat diru utzi zuten Dama inguruan egin ziren kontzertuek?”**

netan kultur eskaintza zabalena egin duen espazioa), Putzuzulo Amets Fabrika, eraiستeko asmoa dutela, inongo alternatibarik eman gabe.

Umeei eskaintzen zaizkien parkeak zaharkituak eta guttiz estatikoak dira, sormena bultzatzen ez dutenak. Jubilatu edo adinekoei begi-

rako eskaintza merkatuan arautua dago, zahartzaro aktiboaren izenean eta ez sormenarenean. Kultur eredu horrek merkatua, espektakulua, folklorismoa eta turistik lehenesten ditu, herritarron sormenaren kaltetan.



# Eta espazio publikoarekin zer?

Aurretik aipatu tako guztiak espazio publikoaren erabilera guztiz baldintzatzen du. Negozioak eta kotxeak lehenesten dituen herria da Zarautz (nahiz eta kale batzuk oinezkoentzakoak diren); hain zuzen ere, lurzoru zabalak egokitu dira aparkalekuak egiteko, belardiak baldintzatu dira eta ekintza ekonomikoz bete dira plazak. Herritarrek geroz eta espazio libre gutxiago dugu jolasteko, kontsumitu gabe egoteko edota kalean elkartzeko.

Bizikleta franko erabiltzen den herrian, geroz eta kriminalizatuago eta baldintzatuago dago horren

erabilera. Isunak ere jarri dizkiete gazteei pasabidean bizikleta erabiltzeagatik, edota malekoian mantso joateagatik. Txakurrekin ere berdina gertatzen da. Kanpotarrak ez molestatzeko asmoz, udaran toki guztietatik desagerrarazi nahi dituzte txakurrak; ezin dute hondartzan egon, baina bestelako espazioak ere kotxez inguratuta daudenez, ezinezkoa da txakurrekin paseatzea.

Elkarbizitza sustatzeko ez dago geroz eta debeku gehiago jarri beharrik. Elkarbizitzak ingurukoengan pentsatzea dakar. Ingurukoak ahalik eta gutxien molestatzen saiatzea eta inguru-

koen zaratak zein beharrak ahalik eta gehien ulertzea. Gure ustez, elkarbizitzaren parte ere bada herri bizi baten alde egitea.

**“Herritarrek geroz eta espazio libre gutxiago dugu jolasteko, kontsumitu gabe egoteko edota kalean elkartzeko.”**

Zarataren mapa osatzen hasi da Udala. Jakinak dira esaterako, herriko jai batzordeek festa egin dezaten jarritako zenbait muga, zarataren aitzakiapean. Bi zarata iturri nagusi identifikatzen

ditu: bata, trafikoa-ekin du zerikusia, eta besteak, aldiz, aisaldiaren ondorioz sortzen denarekin. Auzokideen bizi kalitatea hobetzea ez da egun batean kexa batengatik debekuak jar-

tzea (momentuz soilik auzo elkarte eta jai batzordeei jarri dizkiete), baizik eta egunero koan eredu jasangarri oso bat eraikitzea. Hailere, egun batean festagatik zarata egoteak ez du kotxeek egunero

eta orduro sortzen duten zarata baino kalte gehiago eragiten.



# Eta zer gehiago?

Milaka izan zitezkeen dokumentu honi egin ahal zaizkion ekarpenak. Gu, ordea, honaino iritsi gara. Lanean jarraituko dugu, herri bizigarriago baten alde. ....

Eta zuk zein ereduren alde egingo duzu?  
Orain, zurea da hitza.

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

[www.basquesouvenir.wordpress.com](http://www.basquesouvenir.wordpress.com)  
Incluida version en castellano



